

# ZAR

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

233n. zenbakia  
urrilla 1998



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**ARTEBAKARRA'N "ISLABE"KO  
KLARATARREN LEKAIMETXEA**

**AURRETXOAN, 1.995'AN KLARATARRAK  
LANDATURIKO ARTEA**

# EUSKALERRIAN EUSKERAZ



1998-99 | KASTU RTEA

OGEITAMAİKAGARRENA  
BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

**Egunak:** ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

**Orduak:** GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

**Ordaña:** 18.000 PEZETA

**Izena emoteko-tokia:** EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22  
BILBAO

31º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO

3 NIVELES Y CONVERSACION

**Días:** LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, 0 MARTES Y JUEVES

**Horas:** MAÑANA, TARDE Y NOCHE

**Curso completo:** 18.000 PESETAS

**Inscripciones:** EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELEFONO 423 53 22  
BILBAO

LAGUNTZAILEA

COLABORA

  
- Bilbao Bizkaia Kutxa

---

# KEREXETA JAUNA JOAN YAKU

---

Dagonilla ren 4'gnean, Kerexeta Gallastegi tar Jaime abade ta idazle bikaiña il zan Elorrio'n. Izan be, euske-reak idazle ordezteziña galdu dau, eta benetan, gure elertia doluz jantzi da.

Kerexeta Jaunak gure aldizkari onetan lankide izanez gaiñera, euskal elerti bizitza yaukala ta nekegaitza izan dau bere larogei urteotan. Berrogei ta amar idazlan (liburuak) inguru dira, bere maisutasunak lekukotzat utzi dauskuzanak, gure eliz-barrutian sakabanatuak.

Bizkaieraz idazlerik onenatarikoa izan da, eta bere zelakotasunari buruz, beste idazlan bikaiñen artean, Euskal Biblia (Bizkaieraz)'k jakitun ipiñi ninduan, eskuetara etorri yatanean berak niri eskiñita.

Euskeraz lau Biblia biurtu izan dira: "Bible Saindua" bost emonalditan agertu zana 1.859 urtean asita. Lan bikain au, J. Duvoisin kapitanak Lapurdi'ko euskerara biurtua da, euskera errikoi ta ulerterrazaz. Lan au argitaratzeko eragille nekaeziña, Luis Luzien Bonaparte Printzea izan zan, euskereari zaletasun andia eutsana. Gero La Gran Enciclopedia Vasca k 1.972 urtean Biblia onen bigarren argitalpena egin eban. Gipuzkeraz aita Uriarte'k biurpen bat egin eban, eta Olabide S.J. k 1.958 urtean "Itun Zar eta Berria" gipuzkeraz be argitaratu eban. Eta Bizkai'ko euskeraz, noizbait, "Euskal Biblia (Bizkaieraz)" deritxana, Kerexeta tar Jaime abadeak biurtuta, 1.976 urtean agertu zan.

Lan erraldoi ta yaukal au naikoa da berez, idazle bat elertiaren gorengo maillara jasoteko. Itzela da Kerexeta Jaunak bere gain artu eban aalegiña lan luze, garrantzitsu, eta zeatz au egiteko „Bere orrialde ugarietan murgil-

tzen danak euskeraren mundu barri bat estalgetzen dau: errikoia, landua, aberatsa, eta era berean ulerterraza dan euskerarik zoragarriena, eta au nabarmenago agertzen da, "Batua" k euskereari egin dautsan kaltea bekalde-tzean (bardintzean).

Niketz zor andia dausat Kerexeta Jaunari, euskera ona, ederra, zer dan erakutsi daustalako. Zenbatu eziñe-ko ordu zoriontsuak jasan dodaz Biblia onen alor era-karkorrak ausnartzen eta gozatzen era berean, eten barik nire euskera obatur, eta arbasoek utzi dauskuen izkun-tza gero ta maiteago dodala.

Bai, gure elertia doluz jantziten da, eta neuk lez Kere-xeta Jauna ederresten dogunok, bere aldegitteak erostari biurtzen gaitu. Baiña idazle andiak lez, atzean geratzen diran bere lanak, aren anditasunaren lekukoak betirako izango dira. Goian bego gure maisu ta adiskide jakin-tsua.

**Zubiri'tar Iñaki**



---

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:  
EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

---

# KEREXETA JAUNARI

---

Nundiko norako jokabidea  
asi lei gizon onegaz  
itxaso bera dirudi eta  
arrañik ederrenagaz:  
aizeak jota dagon itxaso  
dirudi maiteagaz,  
ara ta ona gazterik dabil  
ardura aundienagaz.

Euskalerrian eta Kastillan  
egin ditu ikasteak  
gogo onenaz ondo osotuz  
beraren ikaskizunak;  
lenen lenengo bere errian  
ar zitun ikaskizunak  
gero on doren erritik kanpo  
osotuz jakintza lanak.

Lenen lenengo abadegintzan  
Burgosen musikalaria  
bigarren lana organujole  
Sebillan dabil kantari;  
irugarren lan aipagarria  
eskeinduz Jaungoikoari  
Vigo'ko Tuy'n dabil apaiza  
eleiz otsein serbitzari.

Amairu urte erritik kanpo  
beti, eleiza otseintzen  
bere nortasun aipagarria  
joan zan ondo zabaltzen;  
orren ondoren bizi barria  
asi bear zan agertzen  
Elorriori seme trebea  
asi jako urreratzen.

Bizkai zelaia eta mendiak  
eguzki printzaz batean  
aurrera doaz argi zabaltzen  
abadearen bidean;  
geroago ta indartsuago  
dabil aizea aidean  
asmo bikaiñak sortzera doaz  
Kerexetaren barnean.

Euskalerria jakintsua da  
izkuntza arazoetan  
zoragarriko berbeta dauka  
arimaren errailetan;  
nork ez dau maite edertasuna  
jakiturizko itzetan  
maitasun garrez inguraturik  
bizitza dana urretan.

Berezko doia izan zenduan  
Elorrioko semea  
ta euskal itza maite zenduan  
jakituriaz betea;  
betirako dana arnas biziaz  
itzi bear zan elea  
Euskalerria nun bizi izan zan  
agertuteko erea.

Lenen lenengo agertu zendun  
gure izakuntzaren ederra  
jakitun asko arritu ditun  
olerki gai zorakorra;  
egi-egitan aurrera joian  
euskaldunen itz jatorra  
olerki gozoz poztueraziz  
euskera zarraren lurra.

Danen artean gauz aundiena  
Jaungoiko itza bera zan  
zerutik ona etorri jakun  
salbamenaren bidean;  
Biblia dana zure erriari  
argitu zeuntsan euskeran  
gizabizien askatasuna  
lortzeko zorionean.

Egite asko dira ederrak  
gizonaren bizitzean  
ta bat bakarrik nagusia  
biotzaren barnean;  
Jaun goiko itza artu egizu  
borondate onenean  
Kerexetaren asmoa izan zan  
argi eitea lurrean.

---

## ARTEA

---

Euzkotar guztiok dakigu, ta ondo jakin be, zer eta zelakoa da zugatz eder ori. Uda ta negu orriz jantzita dagoana ta orregaitik bere orriak iraunkorrak dirala esaten dogu.

Baiña au ez da ona dakarkigun arazoa. Onetzaz zeozer idazten ba dogu, geure artean, Bizkaian beñipein bat gitxienez, ospetsua izan zalako da ta alderdi baten bakarrik bizi izan zalako edo, alderdi ori "ARTEBAKARRA" izenaz ezagutua izan da beti ta gaur egunean be orrelan ezagutzen dogu.

Alderdi ori, geure aurrekoen denporan bildurgarria izan zan; an lapurketak eta baita eraiketa bat baiño geiago egin ziralako. Baserritar baten bat Basurto'ko abere-azokara bei edo idi pare bat saltzeko asmoz joiala, lapurrak jakiten ebenean illun-nabarrerantza begira egoten ziran ia noiz etortzen zan etxerantza ta orduan urtetan jakozan bidera ta saldu eban aberearen dirua eskatu ta onean ez ba eutsen emoten nai ta naiezean kendu ta, sarri askotan il-zorian bertan bera itzi edo len aitatu dogunez, ilda itzi.

Gaur egun ez dago olango arriskurik, geure Aldundiak bide-zabal ederrak egin dauzelako ta gañera zugatzez ornituta; onegaitik joan-etorriak nasai egiten doguz.

Alan da guztiz be, zugatz orrein artean ARTE bat be ez dogu ikusi ta, geure ustez, bat landatu bearko zan aintxinakoaren oroimenez baiño ez ba da be.

Baina ba dagoz emakume batzuk, edo obeto esanda lekaike batzuk, KLARATARRAK, konturatu diranak ta euren lurrian, lekaimetxera eldu baiño lentxuago, ta euren dan "ISLABE" deritxon baserriaren aurre-aurretuan ARTE bat landatu dabe. Orrelan "Artebakarra" izenak iraungo dau emetik aurrera be. Landaketa ori 1.995'gko. Otsaillaren 26'an egin eben. Egun ori Bizkaiko Aldundiak "ZUGAITZ EGUNA" lez ezarri ebana da ain zuzen be.

Baiña ez da ori bakarrik egin ebena, landatu aurretik, ARTEA'ren azpian, ontzi baten sartuta lafruki bat jarri eben esaten noiz eta zegaitik egin eben landaketa ori. Idatzi ebena euskeraz eta gasteleraz izan zan; jarraian lekaike guztiak izenpetu eben (guztiz amairu) ta eurekaz batera euren kapellaua ta azkenez, neronek be bai. Larruki orren argazki bat euren lekaimetxean gordeta dauke.

Olan, ez dakigu ementik zenbat urtera, baiña ARTE ori zarraren-zarrez jausiko danean, jakingo dabe landaketa orren zergaitia ta artearen adiña bebai.



Eta gero esango dabe lekaikeak otoitz egiteko baiño ez dirala gauza! Sarri askotan, euren zereginakaz erakusten dauskue ludi onetarako be gauza dirala.

Landaketa ori egin ondoren esan euskuen nun egoan alderdi orreri "Artebakarra" izena emon eutson ARTEA; ori, "Laukariz'erako" bidea artzen dala ta lastertxu dagoan baserrian bertan egoala.

Orain ba daukagu geure "ARTEBAKARRA" barria ta egunetik egunera azten dala ikusten da. Lastertxu zugatz ederra egingo da ta, geure ustez, danoren poztasunerako izango da.

Orrelan jarraitu begi urte askotan eta geuk ikusi dagigula emengo begiakaz ez ba da be, bai Goi-goitik geure Aita Onaren etxetik begiratuta.

**Egileor'tar Jon**

---

## EUSKAL ABOSTEGIA ETA ONEN OGUZKATZEA MUNGIALDE, BERMEO TA ONDARROA'n

---

### EUSKERAZAINTZA ERRI-AKADEMIA SARTZEKO ITZALDIA

Izlaria: Olazar'tar Martin  
Aurkezlea: Zubikarai'tar Augustin  
Erantzulea: Latiegi'tar Bixente

Mungia'n, 1992-4-25

Jaun andreak:

Urte hatzuk dira "Lauaxeta"ren omenez emen batu giñala.

Gaur be euren gara barriro.

Zein, nor garean?

Euskerazaintzakoak.

Euskerazaintza zer dan?

Akademi bat. Erri euskeraren aldeko akademia. Ba dira amabi urtetik sortua dala. Sortu eta legezkatua, aintzat artua. Baiña egia esateko, gitxi lagundua.

Alaz ere lan egiten diardugu eta gaur be lanera etorri gara.

Zegaitik Mungia eta ez beste leku batera?

Ara: Euskerazaintzak, beste Akademiak lez, bere araudia dauka. bere erregelak, bere bete bearrak.

Eta betebeartan sartzen da Akademien oitura bat: Norbait akademiku izentatzen danean, aukeratzen danean, beartuta lez geratzen da itzaldi bat egitera.

Guk, egia esateko, ez dogu oraiñarte orrelakorik egin. Taldeko lanak eroaten daskuez gure illeroko batzarretako orduak. Izan be zeregin lez artzen dogu Euskerazaintzako izatea, eta ez onore lez.

Baiña ez zeregin ori aztuta euki dogulako.

Igaz, azken aldian, ordurarte gure lendakari zintzo izan zan Lino Akesolo Aita, ainbat gauzetan lanpetuta ibiliarren, gertu zan itzaldi ori egitera. Erabagi gendun noiz egin. Baiña gizona dabil eta Jaunak darabil, diño esaera zar zurrak. Alaz eta ziur nago Aita Lino arduratuko dala zeruetatik Euskerazaintzari argi egiten.

Aren utsunea ordezkatzeko gure artean egin genduzan auteskudentan Olazar dar Martin jauna aukeratu gendun lendakari, eta au, eleizako gauzetan lez euskerakoetan be zeatza izan gura dauana dan lez, lenengotik gertu zan araudiaren aginduetara makurtzera eta orra gaur zeregin ori bete naian gure aurrean.

Eta Mungia'ra etorteko aitzaki on bi euki doguz: Bat, bere itzaldiaren gaia. geien bat Mungian, Mungiko euske-

ran oiñarrizten dalako. Bera lurralde onetakoa izanik ondo ezagutzen daualako emengo euskeraren bereiztasuna. Ez bakarrrik emengoa. Gaia zabalago egitearren, Mungia, Bermeo eta Ondaruko euskerari buruz izango da.

Au da: Euskeraren aozkatze eta aboskatzea Mungia, Bermeo eta Ondarro'an. Au da, euskeraren fonetika eta fonoloj ia.

Erri bitan beintzat, Mungia eta Bermeo'n egona da. Ezin ukatu gala bizibizi ezagutzen dauanik.

Bera inguru onetako izatea eta gaur bertako parroko izateak be aupatu gaitu erri onetako Kultur etxe eder onetan, Akademi ikastaroa deitu geinkion jai au emen egitera.

Ortik kanpora don Martin nor dan?

Nik aurrez goratu eta txalotzeak ez dauka grazirik. Entzun berari ta gero esango dozue zelako santua dan ta zelako kanpaia jo bear jakon.

Origaitik nik, labur-labur eta konfiantzaz eskatuko dautsat: On Martin, ekin.

\*\*\*

### ITZALDIA NONDIK NORA DOAN

Sarrera

- 1.- Abotsak zelan sortzen diran
  - 1.1. Aboskiña.
  - 1.2. Dunduridunak eta dunduribakoak.
  - 1.3. Bakartiak eta lagundunak.
  - 1.4. Bakartiak: atzekoak, erdikoak, aurrekoak. Zabalak eta itxiak.
  - 1.5. Lagundun motak: Non oguzkatzen diran kontuan dala.
  - 1.6. Zelan agozkaten diran kontuan dala.
- 2.- Abots jatorrak eta abots utsak.
- 3.- Abots bakarrak itxitea.
  - 3.1. Mugatzaillea ipiñikeran.
  - 3.2. Abots bakar bi jarraian diranean.
  - 3.3. Abokaldi batetik bestera itxitea (metafonia).
- 4.- Abots lagunduen aldakuntzak.
  - 4.1. Abogaiñeratzea.
  - 4.2. Gogorak gozotzea.



- 4.3. Gozoak gogortzea.
- 4.4. Surreratzea.
- 4.5. Galtzea.
- 4.6. Antzeratzea.

## 5.- Bermeo'ko esaldi batzuren azterketea

"etxako Kose ainbeste gusteten. Gurau dotzu arek mariñu bategaz ezkondu. Lapurtxuenekuegaz eñ dseu domekan jantzaldi bat... da ilusiñoz beterik dakozu.

Aregaz ez pentsetie deko. Nobidsie dako arek kanpoko erridsen".

## SARRERA

### JAUN ANDREOK:

Guk egin al doguzan baiño askoz gaitxagoak diran gauzak egiten dauz izadiak, eta erreztasun aundiaz egin be. Guk ez dakigu atomo edo kizi bat zelan egin, baiña izadian eginda aurkitzen doguz. Oneitariko bat da, zalantza barik, izkuntza eta izkuntza-barruan oguzkerea: Ama batek, eta umearen inguruan diran senideak alegin aundiak egiten dabez umeari berba egiten irakasteko, baiña irakasle oneik ez dakie eurak zelan egiten daben berba, abots bakoitza aterateko zer egin bear daben edo zer egiten daben.

Gaurko itzaldi onetan lenengo ekiñaldia onetarako izango da, abotsak sortzeko zer egiten dogun, labur-labur aztertzea. Gero abotsak zenbat eratakoak diran esango dogu. Orrelan abots-sortze edo fonetikaren ikuspegi labur bat izango dogu.

Egia esan, gaur aztertzeraz sartzen garan arazo au Euskaldunen artean oso gitxi aztertua izan da eta itzaldi onetan agertuko dan lez, gai oso jakingarria ta pozgarria da.

Entzuleen artean arlo onetan jakitun dan iñor ba'lego, bitarteetan izango doguzan alkar izketak alkar aberasteko izango dira.

Gero, bigarren zatian, Mungialde, Bermeo eta Ondarroa kontuan doguzala, erririk erri diran aldakuntzak aztertuko doguz. Arlo onetan ez dot uste nik egin dodan antzeko azterketarik iñok egin dauanik, baiña, zuek, geienok, erri oneitako seme-alabak zarien ezker, edozein unetan esan al izango daustazue: Ori ez da orrelan, gure errian ez da ori orrelan oguzkatzen. Eta ba-leiteke ori diñoana zuzen egotea eta ni oker, baiña erririk erri entzuten ibillia naz.

Itzaldi onegaz norantza goazen edo zer lortu nai dodan esango daustazue. Nire erantzuna oso erreza da: Gauzak zelan esaten doguzan eta zergaitik orrelan esaten doguzan jakin.

Erririk erri, baserririk baserri, esaldiak artzen ibilli nintzanean, olako zerbait esaten eusten: "Guk olan esaten dogu, baiña guk ez dakigu euskeraz ondo egiten. Berorrek zuzendu begiz". Eta ikusiko dozuen lez, arau argiak eta zurrak betetuz egiten eben berba, eurak be ez ekiezan arauak.

Nik uste dot geuk beteten doguzan arauak zeintzuk diran jakitea, gauza egokia dala eta orixe izango da egingo dogun egiteko bat.

Lur-irudi edo mapa batzuk ipiñi dodaz zuen eskuetan. Ez dira erti-lanak marrazketa eta margozketa-lanetan ez jakiña dan batek egindako zirriborroak baiño. Dana dala, esango doguna ulertzeko lagungarri izango dozuez.

Zati bi izango dauz ba berbaldi onek: Abotsak zelan sortzen diran eta Mungialdean abots orreik zelan aldatzen diran. Bitartean atsedeen-alditxu bat egingo dogu.

### 1.- Abotsak zelan sortzen diran

Gai au egokiro azaltzeko jakituri-arlo sakon eta zabal batera sartu bearke geunke eta ori eziña litzake onen lako itzaldi labur baten, baiña jakingarri azaleko batzuk emon bear dira, esaten doguzanak ulertzeko.

#### 1.1. Aboskiña

Gure abotsak aterateko, izadiak abos-gaillu eder eta onuragarri bat emon dausku.

Abotsaren dunduria sortzeko abots-ariak daukaguz eta oneik zokodi bat osotzen dabe, iru arik osotua eta zokodi irukoitzaren erara atondua: Dunduria, bakoitxak berea dau, Abots-gailluak be bardiñak ez diralako: Batzutan zokodi luzea da beste batzutan zapalagoa, eta zelako zokodia, alako abotsa izaten da.

Gaiñera, zokodi ori norberaren alegiñez luzatu egin leike eta orduan goiko abotsa sortzen da, edo zapaldu, eta orduan abotsak zolitasuna galtzen dau.

Abots-gaillu au oso egokia ta ederra da, beste edozein eres-gaillu baiño ederragoa.

#### 1.2. Dunduridunak / Dunduribakoak

Abotsak atera nai doguzanean, batzutan abots-ariak erabili egiten dogu ori, eta beste batzutan abots-ariak erabili barik.

Abots-ariak erabiliateraten doguzan abotsak, dunduridunak dira: Bakartiak edo bokalak guztiak eta lagundun edo konsonante asko.

Argiagi esateko: Arnasea aboskifietik igaro barik ateraten dogunean, ez dago dunduririk, baiña arnasa ori aboskiñetik igaroten bada, orduan dunduria dago.

Dunduri orreri oztoporik ipiñi ezik, eztarritik, agotik (edo surretik) eta ezpanetatik bidea zabalik aurkitzen ba'dau, dunduria urtengo da. Beste batzutan, dunduri orreri oztopoa ipiñiko jako. Or sortuko da lagundua dan abotsa.

#### 1.3. Bakartiak eta lagundunak

Abotsen artean antxiñatik artu dogun bereizkuntza da, batzui bakartiak edo bokalak eta beste batzui lagundunak edo konsonanteak esatea. Bereizkuntza au ez da trebebidet oso zuzena. Lagundunak deritxogun batzuk bakartiak baiño dundurizko bakartasun geiagi daukelako.

Dana dala, bereizkuntza ori onartuta jarraituko dogu.

Zer egiten dogu bakartia oguzkatzeko? Abots-bideak zabal-zabalik itzi.

Nondik orduan ain euskaldunak eta jatorrak diran bost abots bakartiak?

# EUSKERA

Gaztelereak be euskeratik artu dauala diño Menendez Pidal'ek host abots bakarti oneik baiño ez izatea.

## 1.4. Bakartiak: atzekoak, erdikoak, aurrekoak. Zabalak eta itxiak

Abots-bidea zabal-zabalik izan arren, /a/ abotsak ezta-rrian edo atzekaldian dauka bere leku berezia, /e/k, oster, apur bat aurrerago. /i/ abogaiñean kokatzen da eta orregaitik da abots-bakar iraultzaillea, /o/ aurrean kokatzen da eta /u/ aurrerago.

Eta abots-bidea zabalagoa da /a/ esateko, itxiagoa, urrengorik urrengora. /e/ ta /i/ esateko eta aurrean /u/ esateko itxiagoa /o/ esateko baiño.

Orrelan sortzen dira abots bakarti ezberdinak: atzekoak eta aurrekoak. zabalak eta itxiak.

## 1.5. Lagundun-motak: non oguzkatzen diran kontuan dala

Len esan dogu, lagundun abotsak sortzeko abots-bidea ez dala zabalik geratzen, barrutik datorren arnaseari oztopo bat ipinten jako. eta ostopen on ipinten dan, ango abotsak sortuko dira.

Batzutan ostopena ezta-ian dago eta an sortzen da abotsa: /k/, /g/, /j/. /h/?

Eztarria zabalik dala oztopoa surrean ipinten bada, abots surreratua sortuko da, esaterako /m/, /n/, /ñ/.

Surrerako bidea debekatu eta arnasea abo-gaiñera ba'dator, an sortuko da abotsa, esaterako /ñ/, /ll/, /tx/, /tze/.

Abo-gaiñea zabalik dala oztopoa agin-obian edo agiñetan ipinten bada, abotsak toki oneitan sortuko dira, esaterako /d/, /t/, emen euskereari /c/ falta jako.

Azkenez, agin eta ezpanen artean eta ezpan bien erdian ipinten bada oztopoa, emen sortuko da abotsa: /b/, /p/, /m/.

Abots bi dagoz albotikoak be esaten jakenak, arnasea edo aizea minaren alboetatik urtetan diralako, /l/ eta /ll/ dira oneik.

## 1.6. Zelan aboskatzen diran kontuan dala

Agertu dogu labur, abotsak non oguzkatzen diran. Baiña olako toki bakoitzean, geienetan, iru abots daukaguz, eta zelan bereizten dira?

Arnasari edo aizeari bidea eragozteko era ezberdinak dagoz. Batzutan bidea zearo itxiten da, eta orduan gogor-rrak edo "oklusihak" dira. esaterako. ezta-rrian /k/, abosabaian Axe/. agiñetan /t/, ezpañetan /p/.

Beste batzutan oso-osoan ez da itxiten abots-bidea eta orduan abots biguna edo gozoa sortzen da: Ezta-rrian /j/, ago-gaiñean ezpanetan /b/.

Iñoz oso-osoan zahalik geratzen da eta abots iguziak sortzen dira: Ezta-rrian /j/, abo-sabaian /x/ ezpañetan /f/.

Ba-dira abots bi dardara daukenak, dardara au agin obian izaten da: /r/ eta /rr/ dira, eta iparraldean abots au ezta-rriratu egiten da.

Beste abots batzui txistulariak esaten jake: /s/, /tz/.

Esandakoak kontuan dirala, abots bakoitza onelan zeaztu geinke:

/a/ bakartia, atzekoa, idegia.

/b/ ezpanetakoa, dunduriduna, gozoa (iguzia edo itxia).

/d/ agiñetakoa, dunduriduna, gozoa.

/e/ bakartia, atzekoa, idegia.

/f/ agin-ezpanetakoa, iguzia, dunduribakoa.

/g/ ezta-rrikoa, dunduriduna, gozoa.

/i/ bakartia, abo-gaiñekoa, itxia.

/j/ ezta-rrikoa, iguzia, dunduribakoa.

/k/ ezta-rrikoa, itxia, dunduribakoa.

/l/ agin-obikoa, albotikoa, dunduriduna, iguzia.

/ll/ abo-gaiñekoa, albotikoa, dunduriduna.

/m/ ezpanetakoa, dunduriduna, surreratua.

/n/ agin obikoa, dunduriduna, surreratua.

/o/ bakartia, aurrekoa, zabala.

/p/ ezpanetakoa, gogorra, dunduribakoa.

/r/ agin-obikoa, dunduriduna, dardara bakarduna.

/r/ agin-obikoa, dunduriduna, dardara askoduna.

/s/ agin-obikoa, iguzia, txistularia.

/t/ agiñetakoa, gogorra, dunduribakoa.

/u/ bakartia, aurrekoa itxia.

/y/ abo-gaiñekoa, dunduriduna, gogon-a.

/z/ agin-obikoa, txistularia, iguzia, abo-gaiñeratua, dunduribakoa.

/tz/ abo-gaiñekoa, erdi-iguzia, dunduribakoa.

its/ Gipuzkoan bereizten da eta /tz/ baiño abo-gaiñerago oguzten da.

/h/ Iparraldean oguzten da eta /j/ ren antzekoa da, ez bardiña.

/j/ Bizkaian asko erabilten da eta abo-gaiñekoa da, dunduriduna, iguzia.

/tx/ agogaiñekoa, itxia, dunduribakoa, erdi txistularia.


## 2.- Abots jatorrak eta abots utsak

Abots jatorra edo "fonema" berau aldatu ezker berbearen esan-naia aldatzen dauana da: Ogia, obia ez dauke esan-nai bardiña orduan, /g/ ta /b/ abots jatorrak edo fonemak dira. Pakea/bakea esangura bardiña dauke, orduan or /b/, /p/ piren alofona da edo abots utsa da. Etxea/etxie ez da esan naia aldatzen, orduan "i" eta "e" alofonak dira.

Zergaitik egiten ete dira aldakuntza orreik, edo bardin dana, zergaitik sortzen dira alofonak? Euskereak alofon asko dauz, batez be Bizkaikoak. Eta ori onexegaitik jazo-ten dala dirudi: Abotsak erabilliaz gastau egiten diralako edo berbak oguzkatzeko errezasuna billatzen dalako. "Ezgatuz" esatea baiño errezagoa da "ezkatuz" esatea eta "anko" baiño errezago esaten da "ango" "etxea" baiño errezago "etxiei" edo "etxi".

Gaurko gure berbaldiaren muiña alofon oneik aztertzea izango da, oiñarri lez Mungialdeko euskerea artuko dogu. Arrigarria arlo onetan zazpi kilometroko inguruan dagoan arauen aberastasuna. Eta Alofon oneik daroen aurrerapena obeto argitzeko, Bermeo ta Ondarroa'n egiten dan euskerea be pizka bat aztertuko dogu.





**3.- Abots bakarrak itxitea**

Abots bakarrak errez aldatzen dira, izan leiteke, bear ba'da, ondo oguzkatzen alegin gitxi egiten dogulako. Arlo onetan iru jokabide aztertuko doguz Mugatzaillea ipiñikeran, abots bakar bi jarraian diranean eta metafoia eta abokaldirik abokaldira itxiten danean.

**3.1. Mugatzaillea ipiñikeran**

Euskerearen mugatzaille orokorra ta nagusia "a" da. Eta "a" au oso aldakorra dogu, errez biurtzen da "e", ta Ondarroa'n «i»

Arazo au argitzeko lur-irudi edo mapak artu bear doguz eskuetan: Lenengo saillean "a+a" aztertuko dogu, alabaa/alabea/alabia, alabie, alabii. Bigarren saillean "e+a": Etxea/ /etxialexie/etxii. Irugarren "i+a": Egia/egie/ egii. Laugarrenean "o+a": Oilloa/oillua/oillu. Eta bostgarrenean: u+a: Burua/burue/buru (ikusirudiak 1, 2, 3, 4, 5).

**3.2. Abots bakar bi jarraian diranean**

Abots bakar bi alkatzen diranean be, geienetan sortzen dira aldakuntza eta alofonak, erreztasunagaitik naiz abotsak erabilliaz gastau egiten diralako.

/au/ dagoan lekuan /eu/ biurtzen da. Esate baterako, gaur/geur. Lege au ez da beti ta leku guztietan beteten. Mungia, Gatika ta Ondarroa dira beteten ez dabenak, oneik "gaur" esaten dabe. Emen ikusten da "u" itxiena dala eta

"a" zabalena, orregaitik da gatxa "au" esatea.

Beste gauzatu bat be ez da aitzu bear: "Emen dago" esan bearrean "emen dau" esaten da, gero azalduko dan galtzeagaitik, baiña "dau" ori ez da iñoz biurtzen "deu". Beti esango da "emen dau" "ikusirudi".

"lau" zenbakia esaten danean, ostera iñok ez dau biurtzen "leu". Ez dakit or zergaitik ez dan beteten lege au. Bardin esan bear "au" izen-lagun erakuslea edo demostratiboa danean.


"au" bakarti-bikote ori beste batzutan "o" biurtzen da: "esan daust"/"esan dost". Orrelan Mungia'n, Laukariz'en, Gamiz'en, Fika'n, Fruniz'en, Arrieta'n, Larrauri'n, Meñaka'n, Bakion eta Bermeo'n. Lenago agertu dogun bidea artuta, "deust" entzun dot Gatika'n, Maruri'n eta Laukariz'en. Ondarroa'n, ostera aldakuntza sakonagoa da: "Esan dausta/esausta/esasta. Beste esaera baten "dautzut" agertzen da eta Gatika'n, Laukiniz'en eta Maruri'n dotzut esaten dabe, eta besteetan galtzea dago: "tzut".

"au", ori "dauko" itzean "deko" biurtzen da erririk geienetan.

Ondarrutarrak beste aditz bat artzen dabe eta "dakar" diño.

"ea" zelan aldatzen dan mugatzaillea ipiñikeran esan dogu len. Baiña itzaren barruan? Esaterako "bear"? Jokabide bardiña dauko: Mungia'n, Laukariz'en, Laukiniz'en eta Maruri'n "ber" esaten dabe, Larrauri'n eta Meñaka'n eta Bakion be bardin. Gamiz'en "biar", Arrieta'n "bie", Fika'n, Fruniz'en eta Bermeo'n "bi". Ondarroa'n "bir".

"oa" azaldu dogu, "-a" mugatzaillea danean. Baiña itzaren barruan? "Goazen" zelan aldatzen da? Erri guztietan esaten da "guazen", baiña Maruri ta Gatika'n "gozan".



---

# EUSKERA

---

Itzaren barruan "ai" agertzen danean "ei" biurtzen da: "Zaitut"/"zeitut", baiña Mungia'n, Gatika'n eta Fika'n "zaitut" entzun dot.

"eo" itzaren barruan "o" biurtzen da; "egongo"/"ongo".

### 3.3. Abokaldi batetik bestera itxitea (metafonia)

"metafonia" deritxogun au oso zabala da euskera osoan, baiña geien Bizkaian erabilten da. Gastelerak be ba-dauko metafonia, baiña alderantziz: Euskeran "i" k eta "u" k urren-go bakartia aldatzen dabe, baiña gaztelarak lenagokoa, esaterako, Asturias aldean "verso"/"versus"/"virsu".

Arau au onelan azaldu leike: Abokaldi baten abots bakar itxi bat dagoanean (i edo u) urrengo abokaldiko abots bakarra be itxi egiten da.

Gogoratu dagiguzan lenengo erri-izen batzuk. Inon ez da esaten: "Gatika" edo "Fika", toki guztietan "Gatike", "Fike". Zergaitik ori? Aurrean "i" daukelako. Bardin jazoten da aurrean "u" dauken erri-izenetan be.

Baiña ez uste izan izenetan baiño ez dala ori jazoten, beste berba guztietan be jazoten da eta arau ori zeatz beteten dabe euskaldunak gure inguru onetan. Erderatik artutako berbetan be bai: "bonbille", "dire", "mutille". "arraïne", "ude". "gure", eta itz batetik bestera be egiten da aldatze ori: "au da"/"au de". Gure errietan iñoz ez da esaten "bedarre", "bedarra" baiño: iñoz ez da esaten "txakurra", "txakurre" baiño.

Arau ori kontuan dala argitzen dira esalditxu oneik: "Zu te ni", "orritxu bet", "ez dire", "alegiñe", "iru te bi", "eun de bi".

## 4.- Abots lagunduen aldakuntzak

Aztertu dogu abots bakarrak zelan aldatzen diran euskerearen erabilkeran. Aztertu dagiguzan orain abots lagun-duak. Onein artean zazpi jokera aurkitu doguz: Abogaineratzea, iguztea, gozotzea, gogortzea, surreratzea, galtzea, antzeratzea.

### 4.1. Abogaiñeratzea

Euskereak, eta batez be Bizkai'koak, jokera bizia dauka abogaiñeratza eta emen gure inguru onetako errietan be bai, batzutan geiago beste batzutan baiño. Abots-bakarrak itxitera jotzen daben erriak, abogaiñeratza be jokerea dauke eta jokera bi oneik itxas-ertzerantza urreratuz sakona-goak dira.

Mugatzaillea ezarten danean egiten da abogaiñeratze bat. azkenean "i" dauken berbetan: "Egia"/"egije", "ogia"/"ogije". Au egiten daben erriak egoaldekoak eta Bermeo dira (Ikusi 5n. lur-irudia).

"n" edo agin-obiko surreratua, aurrean "i" daukanean abogaiñeratu egiten da, eta ori egiten da, baita erderatik artzen diran berbetan be: "egin"/"egiñ", "kamiñoa"/"kamiñoa", "minak"/"miñak", "jardina"/"jardiña".

"I" edo albotikoa dan agin-obiko dunduriduna, aurrean "i" daukanean, abogaiñeratu egiten da: "dabil"/"dabill", "mutila"/"mutilla", "oilo"/"oillo", "aprila"/"aprille", "abilla"/"abille".

"t" edo agiñetako gogorra "i" aurrean daukanean, abogaiñeratu egiten da, eta batzutan "tt" emoten dau beste batzutan "tx". (Ikusi seigarren lurirudia). "Zaitut"/"zaitut"/"zaitxut". Erri guztiak esaten dabe "zeitut", Bermeo'k izan ezik. Bermeo'n eta Ondarroa'n "zeitxut". Bardin "eiten"/"eitten"/"eitxen". Esaterako ain ugari erabilten dan "aita" izena, ez da iñon be esaten orrelan. Bermeo'rantza urreratuz Mañu'n. Larrauri'n eta Meñaká n esaten da "aitxe", beste erri guztiak "aitte".

"s" edo agin-obiko txistularia be "i" aurrean daukanean, abogaiñeratu egiten da: "ekarriegizu", "ekarrixu", "gai-soa"/"gaixoa", "Juanita"/"Juanitxe" (ikusi 6n. irudia).

Agiñetako abots lagundu gogor naiz gozoak, aurrean abogaiñeko bat ba'dauke, eurak be abogaiñeratu egiten dira: "ibilli dira"/"ibiljire", "egin dot"/"in jot", "egin eta gero"/"iñjegero". "d" danean "j" biurtzen da baiña "t" danean "tx".

Abogaiñeratze au egiten da, baita, "i", "r" ta "n" ren ostean be, erderatik artuetan be bai: "Quincena"/"Kintzena", "falso"/"faltso", "careel"/"kartzela".

### 4.2. Gogorrak gozotzea

Abots lagun-dun itxi ta gogorrak bigundu egiten dira, beti "n" ren ostean eta sarritan "I" ta "r" ren ostean: "kendu", "igongo", "egongo", "ondo", "nondik", "eun ta bi"/"eun de bi", "Amar ta bi", "amar da bi".

### 4.3. Gogortzea

Au len esan dogunaren alderantziz da: Aurrean "s" (edo "z") dagoanean, gozoa gogortu egiten da: "Ez dira"/"eztira", "ez gatoz"/"ezkatoz", "ez bá da ze"/"ezpadaze".

### 4.4. Surreratzea


Agin-obiko surreratuak bide ez bardiñak artzen dauz munduko izkuntzetan, Portugaldarrak, esaterako, galdu egiten dabe, Frantze'tarrak aurreko bakartiak surreratzen dabez, eta lagun-dua galduta lez geratzen da. Ikusi dagigun orain euskereak zer egiten dauan abots lagun-du oneri begira. Emen Mungia-inguru onetan zer egiten dauan azalduko dogu eta errez ikusiko da euskera osoak zer egiten dauan eta beste euskal-izkera batzuk zein erabilketa artzen daben.

Errien izenetan /n/ ori galdu egiten da: Laukiniz/Laukix, Fruniz/Fruix, Lemoniz/Lemoiz, Gordoniz/Gordix, Gaminiz/Gamix eta leku batzutan Mungia/Mugie. Zori txarrez batzuk uste izaten dabe /n/ gaz idatzi ezkeror dala, eta /n/ barik euskera, baiña argi dago bietara dirala itz euskaldunak eta jatorrak eta idazkerak "ogixe" idazten ez dogun antzera, beti "ogia", bardin idatzi bear geuke /Lemoniz/ ta ez /Lemoiz/.

Baiña guk gaur artu dogun arloa ez da zelan idatzi azaltzea, erriak /n/ orregaz zer egiten dauan agertzea baiño.

/ano/ /ao/ biurtzen da eta gero /o/: "Libano", "Libao", "Libo".

/onalk/ /oa/ egiten dau: "Lemona", "Lemoa".



/enal, toki-izenetan beintzat galdu egiten da, "Gerena"/"Gerrea", "barrena" k ostera ez dau galtzen. Toki-izenak ez diranetan be bai sarritan, jokabide au Galiziarraz baterakoa dogula: "Arena"/"Area" Galizia'n naiz emen. Eta ez dogu aiztu bear galtze au antxiñako jokerea dauala euskereak eta latiñetik etorritako berbetan be ba-dagoala: "Catena"/"katea", "campana"/"kanpaea"/"kanpaia"

lan/a toki izenetan galdu egiten da: "Sopelana"/"Sopela".

/inal: emen gauza berezia da "i" aurrean eukitea eta "i" orrek agogaiñeratu egiten dau urrengo "n" eta ez da gaitzen: "Filipinas" i "Filipiñe" k, "Argentina" / "Arjentiñe", "Maki

ion!: erderatik datozen berbetan gaidu egiten da, baita toki-izenetan be: "leon" l "leoi", "Butron" l "Butroi"

ñion/: inguru onetan eta Bizkai osoan liño/ biurtzen da, aurreko "i" ren indarraz, baiña Gipuzkoan "io" eta Eparraidean "ionea". "Pasiño", "pasio", "pacionea".

lan!: geienetan azken /n/ ori gaidu egiten da "gaztan" l "gaztae" edo "gaztai", "capeilan" l "kapellau", "sakristan" l "sakristau".

len!: Ez da galtzen: "tren" / "trena".

lin/: ez da galtzen, !i/ orrek agogaiñeratu egiten dauala: "Txakolin" / "txakoliñ".

ñni: onek jokera aundia dauko galtzera berba arruntetan be. Esateko aditzetan: "edaik", "jaik", "joadi", "urteik", baiña morfema edo itz-zatia danean ez da galtzen, esaterako "amarena" / "amana".

#### 4.5. Galtzea.

Gure izkuntzan eta izkeran, bai abots bakarrak eta bai

lagundunak, eta abokaldi osoak be bai, eta abokaldi bat baiño geiago be bai iñoz, errez galtzen dira. Gaiñera jokabide au arauetara sartzea be ez da gauza Erreza. Dana dala, erriaren esaerak aurrean doguzala, aleginduko naz olako zerbait egiten .

Bakarti-artean dagon /g/ geienetan galtzen da: "nago" / "nao" / "nau"; "dagoz" / "dauz". "Egongo" / "eongo" / "ongoz", "erosiko dogu" / "erosiko dou" / "erosiko du" / "erosiku", "eingodozu" / "eingodozu" / "eingozu", "egin" / "eiñ" / "iñ", "dagizun" / "daizun" / "deixun", "Gagoz" / "gauz", "lenago" / "lenau".

/dau/ eta /da/ aditzik geienetan galtzen dira: "bada" "ikusi dot" / "ikusiot", "kendu dausat" / "kendu-tzet", "ikusit ditue" / "ikusitue", "erosiko dogu" / "erosiku", "ba' dozu" / "bozu", "esan dautzut" / "esantzut".

"k" azkenekoa galtzeko oiturea antziñakoa da Bizkaian, gitxienez erdi-arotik dator. "etzetik" / "etzeti".

#### 4.6. Antzeratzea

Abots bakarren antzeratzea ez da asko ikusten Mungialde'ko errietan, Bermeo'n bai geiago.

"ikusi" / "ukusi" entzun dogu Gamiz'en eta Fika'n, "egon" da Mungia'n beintzat. Bermeo'n "emon" / "omon", "etorri" / "otorri". Askuek antzerako jokera bat agertzen dau Erronkariko euskalkian.

Abots iagundunak antzeratzea zabaiaigo dabil erri guttietan. Berba bat /n/ gaz asten danean, aurreko /z/ be /n/ biurtzen da. "Ez nago" / "enago" / "enau", "ez noa" / "enoa" / "enue" / "enu".

Berba /fi/ gaz azten danean aurreko /z/ be /l/ biurtzen da, "ez leuke" / "eleuke" eta antzera /z/ gaz asten danean be: "ez zan" / "ezan".

#### 5. Azterketea

Itzaldi au naikoa luzea izan dala, eta bear ba'da gogaikaria be bai, dana amaitzeko Bermeo'ko izkeratik artua dan idatz zatitxu bat aztertuko dogu. Ortuzar'tar Robustiano'ren Oroigarriak deritxon liburutik artua da. Liburu au Bermeo'ko izkerea agertzen alegintzen da, baiña beti ez dau lortzen, idazlea landua izanik, noizean bein belarria ikusten jako. Itz-Aurrea Azkue'k egiña da.

"etxako kose ainbeste gusteten. Gurau dotsu arek mariñu bategaz ezkondu. Lapurtxuenekuegaz ein deu domekan yantzaldi bat... da ilusiñoz beterik dako.

Aregaz ez pentzetie deko. Nobidxie dako arek kanpoko errixen.

Etxako: "Ez jako", aurreko /z/k/dx/ biguna gogortu egin dau "ez da" / "ez ta" l "ez da" lez.

Kose: itzaldi onetan agertu ez dogun, aldakuntza bat dago emen: Izki iguziak /f/ ta "j" ez dabez gogoko gure euskaldunak orregaitik "Jose" l "kose" edo "Fika" / "Pike".

Gurau: "gurago" k bakarti-arteko /g/ gozoa galdu egin dau.

Dotzu: "Dautzu" ren "au" emen "o" biurtu da. Mungialdean "deutzu" be esaten da.

Mariñu: Emen /i/ ren indarra ikusten da eta /n/ galdu barik agogaiñeratu egin dau.

---

## EUSKEREA

---

Lapurtxuenekuegaz: "Txua"/"txue", orrelan Mungialde guztian be. Baiña "koa" esango litzake Mungialde osoan. "kue" Bermeo'koa da eta Mungialdean erderatik oraintsu artutako berbetan egiten da ori "banco"/"bankue", "baso"/"basue", baiña ez antxiña artutakoetan: "camino"/"kaminoa" edo berba euskaldunetan: "beso"/"besoa".

Eiñ: Galtzea dago or, -g- galdu da, eta azkenen -n, "i"ren indarrak In! biurtu da.

Deu: Izatez "dau"zan, baiña aurrean /ñ/ dagoiako, ondorengo /d/ agogaiñeratu egin da eta "d"/"ds" biurtu. "Au" be "eu" biurtu da, arauetan esan dogun lez.

Bat: Emen bermeotarrak "bet esango leukee. Bear da Ortuzar'en jakituria egin dau aldakuntza ori, "kultismoa" da. Zergaitik? Aurrean /u/ daukalako.

Ilusiño: Erderazko "ilusion", baiña liken indarra dagoalako, /n/ ez da galdu, /ñ/ biurtu baiño. Ikusi arauetan esan dana: pasiño, palio, pasionea...

Pentsatie: azkeneko /ea/ emen lie/ biurtu da.

Deko: "dauko"/"deuko"/"deko".

Nobidsie: Erderatik artzen diran itzetan, azkeneko /a/ mugatzaille lez artzen da, orregaitik esan lei itzaren azkena /i/ dala eta mugatzaille jarten danean, Bermeo'tarrak agogaiñeko gozoa sartzan dabe or ids/. Mungialderik erdi-inguran be antzera. Orrelan esango leukee Arrieta'n eta Larrauri'n, Mungia'n ostera "noble" eta Maruri'n "nobi".

Dako: len "deko" agertu da, beti ez dira arauak ziur beteten. Mungialdean "deko" litzake, baiña Bermeo'n "dako" be entzuten da.

Erridsen: azkeneko /i/ren araua beteteen. "nobidse" lez.

### Azkena

Eldu gara, Jaun-Andreok, itzaldi fuze onen azkenera.

Zalantza barik gaia luzeegia izan da itzaldi baterako. Txalogarria da zuen eroapenak.

Zer atera geinke arau guzti oneitatik?

Euskerea ondo ezagutzeko, euskaldunakaz egin bear dala berba. Gramatiketan ez dagoan jakituria dauka erriak. Gramatikako arauak jakiteko erriari itaundu bearjako eta ez bestetara, gramatika egin eta erria beartu arau orreitaran.

Gure euskaldunak, kikilduta daukaguz. Ara zer esaten daben guztiak: "Guk txarto egiten dogu berba", zeuk arteztuko dozuz gure okerrak". Eta pentsaera bildurti au asko nagusitu da gure etxeetako umeak euskera batua ikasi dabenean: Umeak uste dabe eurak dakiela euskeraz berba egiten eta gurasoak ez dakiela, gitxiago aitita-amamak. Eta ori sinistuta dagoz gurasoak eta gurasoen gurasoak. Tamalgarria!

Emen aztertu doguzan arauai guk ez dautsegu garrantzirik emoten, baiña erbestetik datozen izkuntzalariak euren daukagun aberastasun au ikusten dabenean arrituta gertzen dira. Arazo au aztertzeo erabagia ba-dakizue noiz artu neban? Deustu'ko Ikastetxe Nagusian Olandako bateri berbaldi bat entzun neutsanean, berak arazo oneik Ondarroa'ko euskeran zelán beteten diran aztertu eban.

Beste ondoren asko be atera leikez itzaldi onetatik, baiña zuek orretarako almena ba-daukazue. Eskerrik asko!

### MAPAK

1  
ABOTS-BAKARRAK IXTEA:  
ZEINTZALLEA IPIÑIKERAN:  
LENENGO LEGEA: -aa -aa -ae  
aa -aa -ia -ie -ii í:  
ea -é -ia -ie

2  
ABOTS-BAKARRAK IXTEA:  
Zeintzallea ipiñikeran:  
ie í lie

3  
Zeintzallea ipiñikeran:  
Laugarren legea:  
Euskal-berbetan -oa > -oa:  
oa > -ua > -ue:  
oa > -oe > -oo > ó

4  
Zeintzallea ipiñikeran: Laugarren legea: -ua > -ua ua > -ue > -uu > ù:

5  
AGOGAIÑERATZEA: Zeintzallea ipiñikeran: Agogaiñeratzan dabe (idije): Ez dabe agogaiñeratzan: (idie, idi):

6  
AGOGAIÑERATZEA: it > it, aite: it > it > itx > aitxe:

## EUSKERAZAINTZA

Euskerazaintza, euskerazaintza, zorioneko lorea, eusko izkuntza zaindutearren agerturiko taldea; gure izkuntza ezpaitan egon, neke samíñez betea, orra semeak eta alabak zaintzen zure bizitzea.

Munduak mundu dirauan arte irauñ daijala euskerak, bere semeak izan daiezan sortzetiko jas garbiak; itzez ederra, zentzunez aundi, joskerak zoragarriak, euzko lur onek merezidu dauz Euskerazaintzaren lanak.

Zure bitxiak agertzen dator Olazarreko semea, ain zara eder, ain aberatsa, izkuntza ezin obea; aurrera Martin, batu ta landu euskeraren arnasea. bedeinkatua izan dedilla euskaldunen lurraldea.

Lendakaria zara zu, Martin, tegi onen izenean. jaurbide legez, jokatu gogor euskeraren omenean; izkuntz eder bat, sendo ta garbi izan dagigun lurtean, izarrak legez argi egiten euzkotarren batzarrean.

---

## EUSKERA

---

Orregaitik, gaurko itzaldi au ez duzu Akademira sartze-ko egin, naiz orixe izan zure asmoa, lan au asi zenduanean. Azkenean, Martin, Akademiaren Lendakaritzara sartze-ko gertatu bait zaizu egiña.

Ta, lan orren bitartez, bide ederra iriki duzu, zure atzetik, gu baiño ikerketalari gazteagoek, gure Eusko-Unibertsitatetik irtetzen zaizkigun jakintsu berriek, euskal-fonetika, eta euskal-fonologia aztertzeraz eta jasotzera jo dezaten.

Fonologia, Martin, fonetikaren atal bat bezala ematen dute nik, gai oniburuz, egun auetan erabili ditudan idazte-iek. Eta ez da gaur-goizean asitako ekintza, oso zarra bai-zik, zuk erabili duzun gaiaren azterketa, ots, fonetikaara-zoen ikerketa.

Krist'aurretik, sanskritarren izkuntziztilariek izan ornen ziran ba, eginkizun ori urrutiko Indi miresgarri artan asi zutenak. Eta Krist'aurreko sanskritarren artean abotsiztiaren jakintza ori bere gaillurrera jaso zuana. Azterlari zaar aien lanak eraman ornen zuan gizadia, Ejito'ko jeroglifiko-entzako gogai-idazkera utzita, aneika aldiz errezagoa eta egokiagoa dan alfabetidazkerara. Ta Feniziarrak izan ornen ziran, geroago, gure kulturazko mundu ontara idazkera ori ekarri zutenak. Ez da arritzekoa. Salerosketatik bizi ziran itxas-gizon trebe aiek Krist'aurretiko mendeetan Indi'ko jendeekin arremanak izan bait zituzten.

Dana dala, gure kulturazko mundu ontan izan zuten Indi'ko abotsiztilari zaar aiek jarraille bikaiñik aski: Ipokrates, eta Aristoteles adibidez Grezi zarrean. eta Galeno erromatarren artean. Benetan saiatu omen ziran ba, itz batek bere baitan daramazkian ago-otsak eta agoaren barruan ots oiek nola sortzen diran jakin nairik. Eta, Birjaiotzakoan, -nola ez?-, Vinci'ko Leonardo berak jarraitu omen zuan aien urratsen atzetik.

Baiñan XVI. eta XVII. mendeak arte, ez omen zan abotsiztia egiazko jakintza billakatu. Ala, 1.791'ean Wolfrang von Kempelen doistarrak asmatu omen zuan, abotsak edo abotsen antzeko ots batzuk sortzen zituan langaillu bat: Eta ia eun urte geroago, 1.881'en beste doistar batek, Eduard Sievers'ek idatzi omen zuan jakintza orren oiñarrizko idazkia: Grundzugender Phonetic": "Abotsiztiaren Oiñarriak".

Baiñan zure aurreko ikerlariak ez baiña zure ondorean etorri daitezkeanak zaizkigu batez ere arduragarriak, gure euskera gaixoa ain era larrian aurkitzen zaigun une mingarri latz ontan. Zuk asi duzun lan eder au, berealaxe jarraitzen ez ba'dugu, emendik urte gutxi batzuetara, lan ori egiterik ez bait dugu izango. Orregaitik da ain garrantzi aundiko lana, Manu Oñatibia'tarrak eskatuta, euskerazain danok egitea erabaki genduan ekintza: magnetofoiaren bidez gure aitona-amonon izkeraren doiñua len-bait-len jasotzen astea, alegia. Belaunalditik belaunaldira aldatzen da izkuntzen doiñua, gure izkuntzaren doiñua batez ere, aranetik aranera, erriskatik erriskara, txokotik txokora ain era bereziko-ko dan gure izkuntzaren doiñua.

Ez dakigu, nolakoa zan orain berreun, zazpireun, milla, bi milla edo lau milla urte, gure euskeraren doiñua.

"Uste al duzu. On Joxe Migel, edesti-aurreko solutrear

eta magdalear aroetan gure leiza-zuloak margoztu zituzten kromañondar aiek euskeraz mintzatzen ziranik?"

"Bai, -erantzun zidan-. Euskeraz mintzatzen ziran, naiz guk, ziurki, aien izketarik ulertu ez. Alare, oartuko giñake euskeraz mintzatzen zitzaizkigula".

Arrazoi zuan. Ez giñake aien euskerarik ulertzeko gauza izango. Eta ez, soilki, orduango itz asko galduak, eta gaurko itz asko orduan oraindik sortugabeak izango lirakelako, baizik eta, aien ezpainen euskeraren doiñua gure belarrientzat arras ezberdiña eta adikaitza gertatuko litzai-gukelako bereziki.

Badu gure laister-ibilli-bearrak beste arrazoi bat ere: Gure aitona-amonak luzaro ez digutela iraungo gogoan artzeaz gainera: Gaur-egunko gizarte-mezu-bideek, irratiak eta telebistak, baztar guztietara sartuz, euskeraren agoskera aldatzen ari zaizkigula alegia, eta ez zoritxarrez onerako. Gure euskera gaztelaren soinu arrotzez kutsatzen ari bait zaizkigu, erarik lotsagarrienean.

Ortik, magnetofoi-bitarte gure Akademiak egitea erabaki duan lana atzeratu-eziñaren garrantzi larria. Gu bakarririk, ordea, ez gera lan eder ori aurrera ateratzeko gauza. Lagunak hear ditugu, lagunak ugari. danon artean bai, ederki burutu bait dezakegu arras garrantzitsua izateaz gainera ain polita iduritzen zaigun eginkizun ori.

Eta bada orren antzeko eginkizun ederrik aski gure euskeraren arloan: adibidez, landare eta zomorren izenen bilketa datorkit orain gogora. Belar bakoitzak, belar bakoitzaren zati bakoitzak eta gure mendi-lur-ibai-itxasoetako pizti eta moxorro guztiek badute beren izena. Izen oiek ez dituzu iztegiatan aurkituko, oso txiroak bait dira gai orri-buruz gure iztegi guztiak. Izen oiek gure aitona-amonon ezpainen daude gorderik. Ezpain oiek ordea, urtetik urtera ari zaizkigu, eriotzaren eragiñez, isilik gelditzen. Urtero, aneika dira galtzen zaizkigun itzak. Eta oso laister, danak izango dira, galdurik geldituko zaizkigunak.

Ta, itz oiek bildu gabe berriz, alperrik izango dira gure abizen eta toki-izenen etimologia argitzeko egin dezazkegun saiaketa guztiak. Gure buruak atzipetzeko bakarrik balioko digute. Itz oiek ezagutzeke, ez bait dago etimologintzara sartze utsa pentsatzerik ere.

Baiñan bilketa ortarako ere, bearrezkoa dugu euskera maite dutenen laguntza.

Lortuko ote dogu ordea, orrelako laguntzarik? Ez dut itxaropen aundirik. Galtzen ari zaigun gipuzkerazko ika gordenaian asi gifiane-ko ere, gogoan daukat zenbati idatzi nion eta zein-ko gutxik erantzun zidaten. Berrogei ta amabosh idatzi; lauek bakarrik lanerako gerturik erantzun.

Alperrik gera euskaldunok gure izkuntzaren aide lan egiteko. Atzerritarrei eta atzerritarren lege eta ekintzei jaurti oi diegu gure izkuntza aurkitzen dan egoera negargarriaren errua. Baiñan ori egitean, gezurretan ibiltzeaz gainera, gure burua zuritu nai dogu gezurketa orren bidez. Gezurra ordea, gezurra da beti. Gure izkuntzak eraso-aldi gogorrik izan ditu atzerritarren aldetik. Baiñan milla aldiz erio-ko-ko

goa gertatu zaio, eta gertatzen zaio, etxeko euskaldunen axolagabekeria.

Izkuntza bat ez dute sekulan atzerritarrek iltzen, etxe-koek nai ez ba'dute. Itzegin ere itzegin nai al dute euskaldunek euskeraz? Izkuntza bat ordea, soilki, izkuntza ori dakitenek erabiltzen ez dutelako iltzen da; ez, izkuntza ori ez dakitenek ikasten ez dutelako.

Ea ba, Martin, zure eta zu zuzendari zaituan Akademiaren oiuek gure euskaldunak beren Iozorrotik ateratzen dituzten.

Zuk beintzat, egin duzu lan ederrik. Eskerrak zuri, Martin, Akademiaren izenean. Eskerrak, emen gauden guztion izenean, euskera maite duten euskaldun danen izenean, eta, baita, euskera beraren izenean ere.

Zillegi bezait nere izketa baldar au bertso baten bidez amaitzea.

Gure erria izen ederrez  
Euskalerria deritza,  
ta Euskal erria euskalduntzeko  
danok lanean gabiltza.  
Ai gure poza Euskera ba'litz  
Euskotar danon izkuntza.

Ostera berriz Euzkadi dana  
Euskalerria balitza.

**Latiegi'tar Bixente**

## GAURKO JAIARI

Gaurko jaiari omenaldia  
gaurko lanari zoria,  
gure izkuntzak merezidu dau  
orrenbesteko zoria;  
tiriki tiki tiriki tauka  
mailluaren ots zolia,  
gure izkuntzak artu daijala  
Euskalerrri lur guztia.

Gaurko batzar au zoragarria  
izan da gure artian,  
euskaldunak dau bere sen gatza  
itz egiten dabenian;  
batean diño ene semia  
biotzaren barrenian,  
bestean diño ene semea  
oituraren izenian.

Gaurko ekintzak bultzatzen gaitu  
buru biotzez lanera,  
gure izkuntza zabaldu dedin  
zelaietatik urira;  
egiz, eder da ibar alde au  
euskeraren solasera,  
Euzkadi oro eder izango  
euzkoen izkuntz erara.

Ezin dot aztu, ezin dot itzi,  
iñola esan bagarik  
erri au sortu eben jendeak  
artistak ziran barnetik;  
biotza dardar, burua dizdiz,  
izan ebezan sortzetik,  
izkuntz argia, bardin bagea  
atareaz odoletik.

Gizontasuna da euzko lore  
uri, baso, mendietan,  
euzko jatorra dagon tokian  
izar bat dago goietan;  
zeru altutik baletor legez  
argi dagi batzarretan,  
bere berbea, lotsaz, artzen da  
munduko legedietan.

**Paulin**

## ARRIETA'TIK GAZTELUGATZE'RA

Euzko baserri aintzagarriak arizti ta intxaur artean zuri ta zabal agertzen dira gure lurraren gainean: etxe jagole txakur zuria beti. azkar gauelean iturritxo ura opaka egarri atselean.

Gure arbaso aintzagarriak sortu zituen kabiak mendi ta solo ta zelaietan zeru izar irudiak: lurralde oro ederrez dauka basetxe apainduriak. maite miñetan ikusten ditut baserri zortgarriak.

Bakar bakarrik zagoz zelaian orlegiz inguratutik. zure leioan dago amama eguzkiz inguratutik; illobatxoak daukaz alboan ataitasunez beterik zuek maiteok daroazue nire odola bizirik.

Giza biziak ez dau nai berez gorrotorik biotzean. senar barria. alai, bizi da emazteagaz hatean: etxeko andre zoragarria pozez, laguntzen lanean, maitasunezko bizieta onek bakea sortzen etxean.

Euskal basetxe kristau sendian Kurutzea da gidari. Jesus maiteak golgota mendin emon euskun ezaugarri: lan ta otoia lurak landuaz batera doaz bidari baserri muga sinimentsuak ikutuz zerukoari.

Paulin

### EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN EUSKAL-ASTEIA 1998 (Bilbao'ko Udalaren babespean eta laguntzaz)

Urte guztietan lez aurte be EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k Euskal—Astea ospatuko dau.

Zemendiaren 30'etik abenduaren 4'ra izango da, Eskolapiotarren Ikastetxean Aida. de Rekalde kalean, 19. atearen, arratsaldeko 8'retan.

Oneik izango dira izlariak eta gaiak:

30.— Astelena: Zubiri'tar Iñaki: Arrese Beitiaren olerkaritza.

1.— Martitzena: Zubikarai'tar Augustin: Euskerearen bitxikeriak.

2.— Eguastena: Latxaga (J.M. San Sebastián): Dabbadie euskalzale ta idazlea.

3.— Eguena: Murua'tar Jose María: Euskerea ta Euskerazaintza.

4.— Barikua: Olazar'tar Martin: Euskerea len, orain eta gero.

Itzaldi guztiak izango dabe aurkezpena, alkar—izketa ta bertsoak. Oneik Paulin Solozabal bertso gille dala.

Beioake euskalzale guztiai gure deia.

### IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabiliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

– Ipuinak asmatutikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

– Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuinaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

– Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.ª eskoia) egon bear dabe.

Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterillan, baita DE[A Egunkarian be al bait lasterren.

– Sariak lau izango dira: 1.º 50.000 pezeta.

2.ª 40.000 pezeta.

3.ª 30.000 pezeta.

4.ª 20.000 pezeta.

– Ipuinak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

**OARRA:** Ipuinak ekarteko epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

**EUSKERAZALEAK**

## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ



## ARRIETA' TIK GAZTELUGATZE 'RA

Inork ez daki noz, baiña orain dala urte asko asi ziran Arrieta'tik eta Gaztelugatxe'rako ibillaldiak. Gaurko zarrenak eta aren aurreko zarrenak eta aren aurretiko zarrenak eta aren aurretikoak, bardin, ezagutu eben. Beti, miñean erabili izan da ezbear aundi ta gogorra izan zata Sollube barrenean. Mendi, solo ta zelaia ezbear aundia izan ebela euren gibelian.

Ta aldi artako kristau seme ta alabak zer jokera artu eben samintasunezko ezbear orren aurrean? Asarretu? Biraoka asi? Ez... Gure arbasoak euskal lurra ta euzko gizartea maite zituen, baiña euskaldunaren zentzuna oroz goitik egoan. Euzkotarrak orrez goitik, lur ta gizadiaren Egillea konartzen zituan ta berarengana urreratzea aukeratu eban. Ori da gizontasuna ta kristau sena bizi izatea ta bear dan garaian zentzunez agertzea.

Euskaldun jator lez alkartuta kristau zintzo legez erabagi bat artu bear eben sinismenaren izenean. Gure errialdeak izan daben ekaitz au dala-ta, sinismenezko ibillaldia egingo dogu Arrietatik eta Gaztelugatxelko eleizara Jaungoikoari bere egizko seme-alaba garala agertuz. Egiz, kristauen jokabidea da.

Egun egoki bat izan bear eban kristau egintza onek. Ta ain zuzen bere, San Inaxio eguna izango zan orretarako bidezkoa. Eskabide edo erregu egintza zan ta euskaldun kristau seme baten eguna ortarako aulkeratzea gauza bidezkoa zan. Erria, gogoz, alkartu zan, inork ez dakian antxiñako aldi aretatik gaur arteraino luzatu izan dan egintza aundi orretan.

Milla be deratzireun ta laroge ta amazortzigarren urteko San Inaxio eguna da. Ordua eldu da ta jendea gertu dago ibildeunari asiera emoteko. Dorreko erlojua zur dago ta goizeko seirak, bizi-bizi, jo ditu. Erria danena da ta aitarren egiñaz, andrazko ta gizonezko asi dira bideak urratzen. Lenengo gidari gazte bat izango da Kurutzeagaz. Egiz, irudi ederra ta erri batentzako betirato gogoangarria ta Euskal-erriarentzat argibidea.

Ibillaldiaren bigarren irudia Andra Maria da. Nor obeerik Jesusek Kurutzeako ordu itzalian geure amatzat emon euskun andrea baiño? Lau gizon doaz, gogoz ta adorez, Maria'ren aldarea eroaten. Osotu da oraintte, aldra guztia buru ta biotz eta Ikeztako zabalgunetik piñoa batera ta pinoa bestera ezer besterik ez da ikusten, ta aurrez aurre, an goian Sollube mendi gaifia.

Aurrera mutil neskatillak, hegira aun-ian aldatz nausia ta burdi-bide antzeko orretatik gora joan bear dogu iru kilometroren buruan lenengo ekiñaldian. Ez dago atzerarik

ta danez goitik aurrea egin bear da aldatza menperaturik. An goian, zugatz bitartetik agiri da mendi gaifia. Egin dogun bidea ez da izan edozelakoa, baina maitasunaren indarrak menperatu ditu sasi, aldatz, arri-arte ta laztasun guztiak.

Ta orain zerua goian ta itxasoa ta lurra, beian, ditugularik, otoi bat zerurantz ur ta lur, izadi ta gizadi guztiaren Egilleak. Egiz, poza emoten dau Aita on bategaz berba egiteak. Aita batentzat bere seme alabak baino obarik ez dago ta arrietarrak gogoa gora jazota, Sollube gaifian Aitagaz berbetan dagoz. Ta Aita zeru goitik Sollubera adi euskaldun talde maite areri begira ta euskaria entzuten.

Egiz, irudi ederra zeru ta lurra maitasunez alkartuta ikustea. Lenengo atsedena mendi gainean izan da ta nekeak zerbait arindu dira. Orain goitik berea dator, nekeak ez dira ain gogorak, baiña azurrak itz egiten dabe kontu kontari euren barnean ta an, be aldean agiri da Karmengo elizaren teillatu gorria. Aurrera doaz kilometroak ta bidea laburtzen doa.

Baiña zeru-turren Egilleak ta bere Amak dei dagie kristau leialen gogoetan. Ta gauza zuzena da ikustaldi bat egitea. Otoi bat, lenengo, gure Gaizkatzaleari, bide guztian zear ibildeunaren buru danari. Pozik dagoz erromesak zerutar maisu onaren aurrean. Izan bere, Jesus berberak esaten eutsen: "Nire poza gizonen semeakaz egotea da". Gauza ederragorik egon ete leike ba, maitaleak alkarregaz, zintzo-zintzo, egotea baiño?

Bigarren begiradea Andra Mariarengana doa. Euskalduna, berez da belarri oneko abeslaria ta ama agurtzeko abestirik ederrena zuzendu eutsan. Egiz, entzutekoa zan seme alabak gogo onez alkartuta, amari zuzendu eutsoen abestia. Zerua zabalik egoan entzuten euskaldun abeslarietako Mañuko eleizeak gogorik onenaz agurtu eban Arrietako abesbatza.

Orain irugarren ekitaldia dator ta kilometro mordo bat geratzen da elburua lortzeko. Oñak arindu ta indarrak barriztu dira zerbait Karmengo Amaren aurrean ta gogoz doaz biotzak Gaztelugatxeko gaifera. Ona euren, arrietarren ametsa eltzen doa Ermita aurrera. Zerua ta itxasoa urdin dagoz ta Ermitaldea eguzki printzetan ta ipar aizea atsegin dator.

Ta orain ordua eldu da. Eleiz barru ta aurralde kristauz inguratuta dagoz burdin kanpaiaren ots zoliaren zain. Deia entzun da ta Meza esale Esteban Orbek asi era agurgarriaren izenean agurtu dau erria ta guztiak batera otoi soiñu ederretan munduak eskeiñi leiken oparirik aundiarena lurretik eta zeruraino zuzentzen dabe anaitasunik on enean.

**Paulin**

---

# EUSKALDUNEN ERRIGINTZA

---

## AIDE NAGUSIAK

Antxiñako euskaldunak ez euren errigintzarako alderdirik, baiña zori txarrez, aide nagusiak ezarten euren euren jokabidea: Bizkaian ganboatarrak eta oiñaztarrak eta Naparroan Agramontesak eta beamontesak.

Aide nagusiak nagusikeria erabilten euren ugari eta euren artean asarreak sortzen ziran bein eta barriro, eta areen ondoren lez gudak eta ilketak. Kanpoko indarra ekarri bear izan gendun nagusikeri ori menperatzeko eta ortik kalte aundiagoak etorri jakuzan.

Ez ete da jazoko gaurko alderdi politikuadaz be orrelako zerbait?

Euskalerrriak bere bideari jarraitu bear leuskio eta ez beti ibilli kanpokoaren ereduak artzen.

## EUSKALDUNEN POLITIKA ZARRA

Erri-agintzaritza gure artera sartu jakun ezkerro, sarritan itaun au egiten dogu: Zein izan da euskaldunak euren erria zaintzeko izan daben jokabidea?

Gaur daukagun errigintza edo demokrazia ez da Euskalerrrikoa jatorriz. Kanpotik ekarria da.

Gure demokrazia eredu izan ei zan munduko beste erri batzuntzat. Zertan? Familian eukan oiñarria: Etxeko jauna zan garrantzi aundiko gizona, naizta izen ori ugazaba ziranak bakarrik euki.

Etxeetako jaunak errietan alkartzen ziran eta alkatea aukeratu, eta alkateak gero Batzarretan batzen ziran eta aginduak egin. Batzarrak urrengo batzarrera arte, aldundia izten eban. Ba-daukagu or zer-ikasirik!

## ERRIGINTZARAKO ALDERDIAK

Sartu zan Euskalerrira be kanpotik etorria dan politika joko. Jakiña, beste erri batzuren antzera ibilli bearra etorri jakun eta artu gendun guk be alderdi politikoen joko arriskutsua.

Antxiñako aide nagusiak eta euren alkarteak egin euren kaltea bera egin dauskue alderdi politikoak: Erria zatitu eta alkarren aurka jarri erri bateko euskaldunak garanak.

Iñoz be ez da izan gauza erreza euskaldunak alkar artzea eta orixe ikusten da alderdien artean be.

Arana'tar Sabin'ek sortu eban lenengo alderdia, Jeltzaleena, eta alderdi orrek asko indartu dau abertzaletasuna. Mundu barrira sartu bear izan dauan gure erriarentzat urtenbidea izan da.

## LENDAKARIA

Alderdi politikuak ekarri dauskuen agintari barria Lendakaria dogu. Izen ori dagokio euskaldunen agintari nagusiari. Eta lendakariak, Agirre asi eta gaur daukagunera arte, onartuak izan dira Euzkadi'n eta inguruan.

Agintaritza onek bere muga arriskugarriak daukaz, batez be euskaldun guztiak bere ardurapean ez izatea: or daukaguz, tamalez, Euzkadi'tik kanpoan Iparaldeko euskaldunak eta Naparrak. Ardantza jauna ez da orrein lendakari.

Baiña erriak al dan eran aurrera egin bear dabe euren kondairan, eta gureak be bai. Goazen aurrera ba, baiña ez dagigun aiztu Naparrak eta Iparaldekoak, anaiak doguzala, euskaldunak.



**EUSPIEREZZLEZIC**

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.  
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea

## BAT GATOAZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konprometzat  
artuten dogu, geure erri onen  
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik  
lagunduten deutsegu gogo osoz,  
geure nortasun berezia indartuten  
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten  
deutsagu, kultur adierazpenen  
artean, gure ezaugarririk gorena  
dan euskerearen garapenari.

---

**EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK**

---

**BBK**  
**Bilbao Bizkaia Kutxa**

200 pezeta

ISSN: 1132 - 1350  
Lege gordailua: BI-1452-85  
FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO